

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TXOTX GARAIA HELDU DA

Aztergai ugari denboraldiaren hasieran: sagardoa eta artea, turismoaren eragina eskualdean... / 6-10

MIKEL ARRAZOLA

Berraondo, Arrateko zaindaria

Mikel Berraondo Lamarain Andoaingo Gazteleku pilota elkarteko sortzaileetako hil berri da, 93 urterekin. Andoaingo pilotazaleek esker ona adierazi diote. / 2-3



Errefusa bereizteko edukiontzi grisa auzoz auzo ezartzen ari dira Andoainen / 5

"Pumori, mendiaren alaba" filma eskainiko dute Basteron, datorren urtarrilaren 29an / 14



Alonso urnietarrak txirrindularitza denboraldiari ekingo dio laster, Euskadi Fundazioarekin / 11

Garaia da. Lehen sektorea, baserritarren jarduera eta hemengo produktuak sustatzeko garaia.

ORAINBERTAKOAK

gipuzkoa.eus

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa



Berraondo Arrate pilotalekuan, 2010eko ekainean, Arruti eta Otermin gazteekin batera. AIURRI

Mikel Berraondo Arrateko zaindaria

Andoainen zesta-puntaren alde lan nekaezina burutu zuen Mikel Berraondo Lamarain asteazkenean hil zen Donostian, 93 urte zituela. Juana Garmendiarekin ezkondu zegoen, eta bi semearen aita zen: Iñaki eta Nestor

Xabier Lasa ANDOAIN

Arrate pilotalekua bere bigarren etxea izan zela esan daiteke, 80ko hamarkadaz geroztik Gaztelekuko zesta-puntako jokalarien prestatzailea izan baitzen. Elkartearen administrazio lanak egiten zituen, eta batik bat, zesta-puntako saila eraman zuen. Bere semeak balira bezala ikusten zituen zesta puntarekin ilusioz beterik Arratera prestatzera azaltzen ziren gazteak. Aiurri 2010eko ekainean eskaini zion elkarrizketan aitortu zuenez, “ni oso gustura ibiltzen naiz eurekin, eta eurek ere nirekin halaxe ibiltzen direla pentsatzen dut. Belarritik tira egin behar zaienean, tira egiten zaie, baina eskuzabal jokatzeko saiatzen naiz batez ere”.

Gazteen irakasle izateaz gain, Gazteleku elkartearen bestelako eginkizunetan ere gogoz iaioitu zen gizona. Esate batera, jokorako materiala prestatzen aritzen zen. “Zesta-punta kirola garestia da eta materialaren gastua aurrezteko zenbait lan egin behar izaten ditut: pilotak josi, saskiak konpondu...”.

Bi omenaldi jaso zituen, bizirik zegoenean

Esker oneko bi omenaldi eskaini zizkioten Andoainen, urtetan zesta puntari eta gazteen kirol formakuntzan erakutsi zuen eskuzabaltasuna zela eta. San Juan jaietan biak. Lehena, 2008an izan zen, Jai Alive enpresak eta

Andoingo Udaleko Allurralde Kirol patronatuak antolatuta. Hunkigarria izan zen ekitaldia, pilotari gazte eta ez hain gazteen (Gaztelekuko eta Gipuzkoako hainbat pilota eskoletako kideak, udal ordezkariak, lagunak eta zaletuak) txalo zaparrada jaso baitzuen. Afizionatu eta profesional mailako pilotariekin osatutako jaialdiarekin biribildu egin zen ekitaldia. Dena esatera, eguna ez zen horren zoriontsua gertatu Mikel Berraondorentzat, izan ere egun batzuk lehenago tronbosi txiki bat izan zuen, eta omenaldira ezin izan zuen berak nahiko lukeen bezain indartsu agertu.

Handik bi urtera, Gazteleku pilota eskolaren eskutik heldu zen merezitako omenaldia, San Juan torneoko finalarekin batera. Arraten jendaurrean esker oneko ekitaldia egin ostean, eguna amaitzeko, Ontza elkartearen Gazteleku osatzen zuten kide guztiekin afari eder batean parte hartu zuen.

Soraluzen sorterria; Andoainen pilotalekua; Donostian bizitokia

Soraluzen jaio zen 1925, baina hango beste hainbat herrikidoren antzera, lanbideak Andoainera ekarri zuen, hain zuzen Bazkardon dagoen SAPA arma lantegira. 1961ean etorri zen Andoainera, eta lehen urte haietan fabrikatik gertu dagoen Alejandro Calonge auzunean bizitzen jarri zen.

Arrate pilotalekura itsatsitako bizitza

HEMEROTEKA [AIURRI.EUS 2010-06-22] | MIKEL BERRAONDO LAMARAIN

Nolaz heldu zinen Gazteleku taldera?

Plaentxikoa (Soraluze) naiz izatez. SAPAko langilea nintzen eta astean bitan Andoainera etortzen nintzen, kainoien zuzenketak egitera-eta. 1961ean, berriz, hamar langile Andoingo lan taldean jarri gintuzten, eta orduan, emaztea eta biok Alejandro Calonge auzoan jarri ginen bizitzen. Beti izan dut pilotarako joera, eta Arrate pilotalekua 1977an ireki zenez geroztik, ikusle modura joaten hasi nintzen. Orduak egiten nituen pilotariaren entrenamenduak eta partidak ikusten. Rafael Elizondo zesta puntalari handia izandakoak zesta-puntako eskola zeukan bertan, eta behin, zera esan zidan: “Ikusten dek, hilean ehun pezeta kentzen diet mutikoei. Hi izango hintzake ona horiei kobratzeko...”. Bere pilota

eskolako administratzaile izateko proposatu zidan, eta nik onartu egin nuen.

Horrela murgildu zinen, orduan, Andoingo pilota giroan...

Elizondo hil zen eta beste zenbait irakasle etorri ziren segidan zesta-puntan: Elola, Barrondo, Aizpurua... Horiek denek utzi egin zuten gero. Azkenean, neroni sartu nintzen irakasle bezala; batez ere Elizondori ikasitako guztia gazteei transmititzea izan zen nire asmoa, umil-umil. Gaur arte. **Gaztetan zestako jokalaria izan zinela pentsatuko du askok...**

Ez, zesta puntista ez naiz inoiz izan. Eskuz jokaturakoa naiz bakar-bakarrik. Pilotari polita nintzen, ezkerria eta aurrelaria, eta afizionatuen mailan Plaentxin sari ugari irabazitakoa naiz.

Arrate pilotalekuko ibilerak beste inork ez bezala ezagutu dituzu. Bada bereziki harritu zaituen pilotaririk?

Batzuren batzuk aipa nitzake, baina oraintxe hiru datozkit: Jon Barrondo eta Nestor Berraondo –nire semea– zesta-puntan, eta Joxe Mari Iturzaeta palan.

Zein zeregin betetzen duzu Gaztelekun?

Denetik egin beharra dago hemen. Batetik administrazioko kontuak daude; esatera batera, federazio fitxak, bilerak erakundeekin, diru eskaerak egin... Eskean ibili behar izaten da asko, han eta hemen. Egin kontu, Udalaren dirulaguntza ia guztia pilotariaren fitxatan (2.300 euro) xahutu behar izaten dugu. Egun hauetan, adibidez, San Juan jaietako eskuzko, zesta puntako eta

palako sariak eskatzen didate denbora eta arreta gehien. Inguruko lantegietara joan eta sariak lortu, jokatzeko ari diren herrietako pilotari eta ordezkariak harremanak eduki...

Bestalde, zesta-punta kirol jarduerak garestia da eta materialaren kostua aurrezteko zenbait lantxo ere egin behar izaten ditut; pilotak josi, saskiak konpondu... Saski baten balioa 300 eurora iritsi daiteke, eta bigarren eskukoak atzetik ibiltzen naiz; uda partean Amerikatik etortzen diren pilotariekin negoziatzen aritzen naiz, eurek erabilitako saskiak ahalik eta merkeen erosteko.

Zer moduz moldatzen zara pilotari gazteekin?

Ni oso gustura ibiltzen naiz eurekin, eta eurek ere nirekin halaxe ibiltzen direla pentsatzen dut. Nire semeak balira bezala ikusten ditut. Belarritik tira egin behar zaienean, tira egiten zaie, baina eskuzabal jokatzeko saiatzen naiz batez ere.

Eskerrik asko Mikel!

GAZTELEKU
PILOTA ELKARTEA

Hitz hauen bitartez Gaztelekuk eskerrak eman nahi dizkio Mikel Berraondori bere bizitzan zehar pilotaren alde eta Gaztelekuren alde egindako lan guztiagatik. Zaila da hitzen bidez Mikelekin egindako lan guztia laburtzea, egindako lana ikaragarria izan baita. Bukaezina zen bere energiarekin beti lanean baitzegoen, pilotaren, elkartaren, gazteen eta batipat zesta-puntaren alde. Eskerrik asko Andoainen afizioa mantendu eta sustatzeagatik, eskerrik asko pilotaz eta zesta-puntaz gozatzen irakasteagatik, eskerrik asko gure elkarte sortzeko egindako lan guztiagatik, eskerrik asko beti errespetuz jokatzeko irakasteagatik, eskerrik asko... Gazte eta pilotari askorentzat erreferentzi bat izan zara eta beti egongo zara gure artean. Eskerrik asko!!



Berraondo, 2010eko San Juan jaietako txapelketan. AIURRI

Betidanik eduki zuen pilotarako zaletasuna, eta Arrate pilotalekua 1977an ireki zutenetik hango ikusle fidelenetakoa izan zen. Pixkanaka, Rafael Elizondo pilota irakasle ezagunak zesta puntako eskolan murgildu zuen. Azken urteetan, Sapatik erretiroa hartu zuenean, emaztearekin batera Donostiara joan zen bizitzera.

Bi pilotarien aita

Zesta puntarako zaletasuna bere bi semeei itsatsi zien, Nestor eta

Iñakiri; Arrate pilotalekuko harrobian hezitakoak izan ziren biak. Nestor Gipuzkoako txapel-duna izan zen 1985ean. Benidormen egin zuen debuta profesional mailan. 1987an eta ondorengo urteetan Milango (Italia) eta Orlandoko (Florida, USA) frontoitan jokatzeko aritu zen. Iñaki anaiak ere Benidormen egin zuen debuta. Hark baino ibilbide laburragoa egin zuen, ordea, hiru urte eta gero zesta-puntaz aritzeari utzi egin baitzion.

Arrateko zaindaria joan da.

2008AN ETA 2010EAN SAN JUAN JAIETAKO PILOTA JAIALDIETAN OMENALDI BANA JASO ZUEN

ORDUAK ETA ORDUAK EMAN ZITUEN ARRATEN, 1977AN PILOTALEKUA ZABALDU ZUTENETIK



2010eko omenaldiaren ostean, Ontzan afaria egin zuten. AIURRI

Klubari lotutako gizona

Gazteleku elkartean zesta-puntaz arduratzen den Igor Lizasoainek adierazi duenez, kirol sustatzaile bikaina izan zen Mikel Berraondo: "Erraztasun guztiak jartzen zizkion zesta-punta probatu nahi zuen edonori. Gure kasuan, kuadrilako lagunok hamaika urte genituela, Gaztelekura hurbildu ginen zesta probatu nahi genuela esanez, eta harrezkero beti eduki izan genuen ondo-ondoan, edozertarako prest. Bazekien jenio bizia ateratzen, baina normalki gazteekin esku ona zeukan. Oso oroitzapen onak dauzkate berarekin estatuko hainbat tokietara lehiatzera joaten ginenekoa. A Coruña, Huelva, Valentziara, Bartzelonara... Pilotariok txoratzen ibiltzen ginen halakoetan, gustuko kirola egiteaz gain bidaiatzeko aukera izaten genuelako, eta iruditzen zait berak ere guk adina gozatzen zuela. Berarekin asko ikasi nuen kirolari dagokionez, baina giza baloreak transmititzeko garaian ere fin aritzen zen; errespetua zen berak gogokoen zuen ezaugarria, errespetua kantxan eta kantxatik kanpo. Pertsona onbera zen, eta zesta-punta barru-barruan zeraman. Klubarengatik dena emateko prest dauden horietakoa izan zen, eta Fermin Altunarekin batera Gazteleku egituratu eta modernizatu egin zuela esango nuke. Dohain bereziak zituen administrazio lanetarako eta erakunde publikoetatik laguntzak jasotzeko".

Tarteka kanpora joan izan gara egun batzuetarako, eta pozez txoratzen ibili izan gara denok. A Coruña, Bartzelonara, Hossegorrera, Palentziara..., hainbat tokitan Europako edo Espainiako Kopa taldeka jokatu izan ditugu. Kirola egiteko ez ezik parrandan ondo pasatzeko denbora izaten dute gazteek, eta gozatu egiten dute. **Zenbat zesta-puntako jokalariditu egun Gaztelekuk?**

Hamabost inguru. Pena ematen dit, baina ez dut ikusten inor atzetik datorrenik; etorkizun beltza dauka zesta puntak Andoainen. Telebista dela medio, eskupilotara jotzen dute gazte guztiak.

Saiatzen naiz zesta puntara erakartzeko horietako bat edo beste; hamar urteko lau bat gaztetxo ikusten ditut oraintxe gertu, saskia eskuan hartu eta proba egin dezaketena... Izan ere, ziur nago zesta punta probatzen duen gaztetxoak gustua hartu eta jarraitzeko aukera izan dezakeela.



AIURRI

Horrela ibili beharra dago mutikoein, jai dago gainerakoan.

Omenaldia eskaini zizuten San Juan jaietan, orain bi urte...

Biziki estimatu nuen nirekin horrela gogoratu izana. Baina eguna ezin izan nuen behar bezala gozatu pilotariekin, lagunekin, zaletuekin... Aurreko egunetan sufritu nuen tronbosi txiki baten erruz.

Noiz arte Gaztelekura lotuta?

Etxean ere horixe galdetzen didate. Hurrengo urterako utzi egingo dudala iruditzen zait. 84 urte ditut, eta gero eta nekagarriagoa egiten zait Donostiako bizilekutik hona etortzea, Arrate pilotalekuan sartuta orduak eta orduak igarotzea, bateko eta besteko kudeaketa lanak egin behar izatea... Badaukat pilotarietako klubeko lan guztiak hartzeko erabakia hartuko duten itzaropena. Pilotekin eta saskiekin egin behar diren esku-lanak nork hartuko dituen bere gain, horrek ematen dit kezka gehien.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA

Santa Agedako kantu erronda

Azken hogeita sei urteetan bezala, aurten ere Manuel Larramendi Kultur Bazkunak otsailaren 4an Santa Ageda bezperako erronda antolatuko du, herriko beste elkarte, ikastetxe eta talderen partaidetzarekin. Andoaingo kaleetan barrena itzulia egingo duen erronda arratsaldeko seietan irtingo da (18:00) Larramendi Bazkunaren Dr. Huizi kaleko egoitzaren paretik, behin bertako mastan Santa Ageda eguna Euskal Herriko eguna dela gogorarazten duen ikurriña lau haizeetara ipini ondoren.

Jarraian, herriko kaleetan barrena ibiliko dira Santa Ageda bezperako koplak kantari, baita neguko otso beltzarenak ere. Zortzi eta erdietan inguru eman ohi diote amaiera errondari. Aurten, gainera, ohiko ibilbidean aldaketak egingo dituzte, Kale Berria alde batera utzita ibiliko baitira eta Olagain auzunera itzuliko dira, besteak beste.

Santa Ageda bezpera iritsi aurretik parte hartuko duten

askok koplak eta kantak prestatzeko aukera izango dute, Ramon Beraza musikariaren zuzendaritzapean. Aurten, ahotsak, kantak eta soinuak prestatzeko saio bakarra egingo da: urtarrilaren 30ean izango da, asteazkenarekin, iluntzeko zortzietan (20:00) hasita, Pio Baroja kalean dagoen Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen atarian.

Larramendi Bazkunik adierazi digute edozein herritarrek parte har dezakeela errondan, tradizioak agintzen duen bezala jaztea eta kantatzea dela jartzen diren bi baldintza bakarrak, eta ahal dela -hori bai- entsegura bertaratzea.

Erronda amaitu ondoren afaria egingo dute Berrozpeko Ontza Elkartean izena aurretik ematen dutenek. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 30ean izango da, entseguan bertan. Otsailaren 4an ezin da izenik eman afaritara joateko.

*Santa Yageda, Yageda...
bihar da Santa Yageda...*

KOMUNITATEA

MINTZALAGUNAK ANDOAIN

Ipuin kontaketa saioa Basteron

Andoaingo Mintzalagunak antolatuta, joan zen astean ipuin kontaketa izan zen Bastero Kulturgunean. Saiora jende mordoxka hurbildu zen, guraso zein haur, eta giro ederrean entzun zituzten Leire Zinkunegi kontalariaren ipuinak. Profesional ona zela agerian utzi zuen ipuin kontalari oriotarrak. Saiora hurbildutako haurrak gogo oneko eta mugitzeko beharrez zeudela ikusita, kantu batekin eman zion hasiera saioari. Haurren arreta bereganatuta, bi ipuin

kontatu zituen: lehena, "Lukas Sagua" eta, bigarrena, "Barrurago sakonago", laguntasuna, elkarlana eta jakinduria, besteak beste, elkarbanatzen dituzten istorioak, hain zuzen. Asmoa haurrak eta laguntzaileen arteko interakzioa sustatzea bazen ere, testuinguruak ez zuen gehiegi lagundu. Dena den, bertaratutakoak gustura geratu ziren entzundakoarekin, belarriak eta irudimena ere gozatu baitzituzten.

Leire Zinkunegik berak esker oneko hitzak eskaini

zituen Aiurri.eus webgunean iruzkina idatziz: "Oso gustura izan nintzen zuekin, pilo bat gozatu eta ikasi nuen zuekin denok! Besarkada handi bat bihotz bihotzez! Ongi ongi segi! Mintzalagun izan ditzagun beti ipuinak!"

Arestian aipatu bezala, Andoaingo Mintzalagunak antolatutako saioa izan zen, 'Bidaide' egitasmoaren baitan. Helburua da gurasoek eta haurrek euskaraz jarduera ludiko eta entretenigarriak egitea da, eta horretarako baliabideak jartzea.

Hurrengo sukaldaritza tailerra izango da, otsailaren 15ean. Ikasturtearen martxa Aiurri.eus webgunean egin ahal izango da, Komunitatea ataleko Mintzalagunak gunean.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.



www.aiurri.eus



• Iritzia
• Postontzia

PROTAGONISTA

"Herritarrak gogo onez datoz gugana, informazio eske"

ENEKO AIZPITARTE ETA ANDER LOPEZ HEZITZAILEAK



Hondakinen bilketa sistema berriari buruzko argibideak eskaintzen ari dira, auzoz auzo. Irudian, Dr. Huitzi kalean. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Erefusa bereiztu eta biltzeko sistema berria Andoaingo herrigune guztira zabaltzen ari da. Hondakinak ondo bereizteko eta birziklapen tasa igotzeko asmoz, bi hezitzaile kalez kale dabilta. Aste honetan eta datorrenean, argibide guztiak emateko prest izango dira. Astearte arratsaldean Doktor Huitzin ipini zuten informazio gunean topatu genituen Eneko Aizpitarte eta Ander Lopez hezitzaileak.

Kalez kale ipini duzun informazio gunean zein da zuen eginkizuna?

Bereziki, bi. Erefusa bereizteko Andoaingo Udalak ezarriko duen sistema berriaren inguruko xehetasunak ematea eta zalantzak argitzea. Bestalde, txartela etxean jaso duten herritarrei organikoaren kuboa eskura ematen diegu. **Jendea hurbiltzen ari al zaizue?** Ez gehiegi. Egia da Kaletxiki, Bazkardo edota Doktor Huitzi ez direla populazio handiko

auzoak. Udaletxera bertara jende gehiago hurbiltzen ari da. Eguraldiak ere ez digu batere lagundu. Euria, haizea, hotza..., gatorren asterako iragarpenak ez dira hobekak, baina hitzorduei eutsiko diegu.

Zeintzu dira kontsulta ohikoenak?

Udalak orain arte organikoaren erabiltzen ez duten herritarrei txartel bana bidali die, eta batez ere horiek dira informazio gunera hurbiltzen ari direnak. Txartela eskuan

duzela datoz. Organikoa eta errefusa nola bereizi behar diren azaltzen diegu. Bestalde, lehendik organikoa bereizten ari den bat edo beste azaldu zaigu ere. Galdera ohikoena da ea txartel berarekin edukiontzia grisa eta marroia ireki ahal izango diren.

Batzuek zein besteek sistema berriari zer moduzko harrera egin diotela uste duzue?

Gogo onez datozela esango genuke. Herritarrek badaukate kontzientzia hori, ohiturak aldatu beharrean gaudela guztiok ere. Jakina, beti azalduko da baten bat kezaka, baina erreparatu horiek normatzen hartu behar dira egunorokotasunean aldaketak planteatzen diren bakoitzean. **Zer esango zenieke txartela etxean jaso eta oraindik ez udaletxera ez zuengana bertaratu ez direnei?**

Auzoz auzo gabiltzala, eta etortzeko lasai, kuboa eskura jartzeaz gain behar diren azalpenak eman eta zalantzak argituko dizkiegula. Sistema berriak ez duela misterio handiegirik, horixe azalduko diogu. Ohitura txiki berri batzuk hartu behar dira, besterik ez. Helburua denon artean hondakinak ondo sailkatzea eta birziklatze maila igotzea da. Merezki du ahaleginak.

"AUZOZ AUZO INFORMAZIOA EMATEN GABILTZA. HURBIL DAITEZELA GUGANA"

HAU ERE BADUGU!

Bidelaguna egitasmoa garatzeko laguntza



Andoaingo Keinuri enkargua egin eta txapel ederra egin dute. Pedro Rodriguez Udaltzain buruak opari polita eraman du etxera, eta baita herrikide askoren aldeko hitzak ere. Facebook sarean jaso ditu mezu gehienak. Lankideen artetik hauxe Jon Iturralde udaltzainak egiten zuen balorazioa: "Merezki du eta herritar gehien miresmenarekin jubilatuko da. Hori ezin du edonork esan".

Eguraldi kontuak @MeteoAndoain-ekin



Igandeko euri jasak bortitz samarrak izan ziren, ibaien ur maila nabarmen igoz. Astelehenean ibaien maila ez zen alerta egoerara iritsi, baina @MeteoAndoain-en arabera, datozen egunetarako prezipitazio handiak espero dira.

ANDOAIN

GUGANDIK HASITA

GURE HELBURUA, BIRZIKLATZE MAILA IGOTZEA

ANDOAINGO UDALA

INFORMAZIO GUNEAK

Manuel Lekuona parkea	Urtarrilak 29, asteartea	16:00-19:30
Leizaran Institutuaren ondoan	Urtarrilak 30 asteazkena	16:00-19:30
Galardi (Udaltzaingo ondoan)	Urtarrilak 31, osteguna	16:00-19:30
Etxeberrieta plaza	Otsailak 1, ostirala	16:00-19:30
Merkatua	Otsailak 2, larunbata	10:30-14:00



Joseba Astarbe sagardogilea eta Gorka Arizkorreta SagarArte proiektuko arduraduna, erakusketaren piezako baten ondoan. AIURRI

Jan eta edan, bete Arte

Denboraldia hasi berritan baserria, sagastia, sagardoa eta sagardotegia modu berezi, ezberdin batean erakutsi nahi duen biderei ekin diote Astigarragako Astarbe sagardotegian. SagarArte proiektua sustatu dute, eta Zizurkilen ikusgai dago

Andoni Urbistondo ZIZURKIL

SagarArte ekimena da, sagardotegiak hainbat kultura arloren bilgune bilakatzea helburu duen asmoa. Artista gazteen lana sustatu, eta haien lanak erakutsi nahi dituzte Euskal Herrian, eta sagardotegiak gastronomia gune soil baino askoz gehiago zirela ezagutarazi jendeari, bisita gidatuekin. Zizurkilen dago, ikusgai, egunotan, SagarArte proiektuko Sagardoaren Kondaira erakusketa.

Joseba Astarbe izen bereko sagardotegiko sendiko kidea da, 15. belaunaldia, dagoeneko. SagarArte pixkanaka esne mamitzen joan den proiektua izan omen da. “Sagasti baten berraldaketa egin behar izan genuen baserrian, arbolak kendu, eta arbol haiekin zerbait ezberdina zergatik ez genuen egiten pentsatu genuen”.

Ezagun bat bazuten, artista bat, “zizelkatzen-eta ona zena, eta hala egin zuen sagardotegian daukagun arbol batekin”. Astarbe sagardotegian arreta ematen duen zuhaitz dotorea dute, eskultura aparta, brontzeko pieza eta guzti, Astarbe sendiaren azken mendeetako jarduna azaltzen duena.

Han eta hemen begiratzen, sagardotegia hainbat arlo kulturalen elkargunea zela jabetu ziren. “Izan bertsoarritza, toka edo bola jokoa, dantza... Hurrengo galdera erraza izan zen. “Zergatik ez ohitura horiek berreskuratu, eta sagardotegia kultura arte espresio horien bilgune bilakatu? Koadroak, ikatzezko marrazkiak... horrelako lantxoak erakusten hasi ginen, eta pixkanaka forma ematen”, dio Astarbek.

Gorka Arizkorreta dauka Josebak lagun bidai honetan. Lagun edo makulu! “Astarbe sagardotegiko mendez mendeko historia

jasoa dago, eta garai batean sagardotegia ez zen etorri, jan, muturra berotu eta kito, askoz gehiago zen. Garrantzi kultural handia zeukan”. Astarbek hartu dio txanda: “Iraganean sagardotegia ere baserria ere bazen, ukuilua zegoen. Orain profesionalizatu egin da asko. Garai hartan sagardoa eguneroko edaria zen, egun dagoen edari aberastasunik ez zeukatelako. Ura, noski, eta akaso ardo pixka bat, baina gehiegi ere ez. Mundu guztiak edaten zuen sagardoa eta jendea baserrira joaten zen sagardoa dastatzera. Gazta mutur bat, bakailao zaharren bat, oiloarekin egindako tortillaren bat eskainiko zioten sagardoa laguntzeko, eta halaxe hasi zen”.

Bertsolaritza non jaio zen galdera botatzen du Arizkorretak, erantzunaren jakitun: “Sagardotegiak dira gure unibertsiteateak. Euskararen zenbait hitz ere, lexikologia, sagardotegietan gorde da, eta SagarArte ekimenak hori berreskuratu nahi du, gaurko kultur adierazpide garaikidearekin uztartuta”. Nola egiten da, bada, hori? “Egurra zizelkatuz, ilustrazio grafikoekin, laburmetraiak sortuz. Adierazpide berri horiek sagardotegi tradizionalarekin uztartzea da gure erronka, zubi lana egitea. Sinergiak erabili nahi genituzke, eta sagardotegia gaur egungo kultura adierazpideen babesleku bilakatu”. Ideiak, garbi.

SagarArte ekimenak mende batzuk atzera du jatorria. Eta Euskal Herrian bezala, Ternuan (Terranova gisa ere ezagutua). Arizkorreta, solasean: “2002an topatutako dokumentuengatik dakigu Tomas de Tafalla Mendiola Astarbe sagardotegiko nagusia Ternuara joan izan zela, bale ehizara, 1596an. 2017an Ter-

ASTARBE
SAGARDOTEGIA
astarbe@astarbe.eus | www.astarbe.eus

Txoritokieta bidea 13, Astigarraga
943 55 15 27



Larre-gain sagardotegian txotx garairako prest daude. AIURRI

Herriko ostatuak betetzen dituen zukua

Aspaldi hasi zen gorakadari eusten diote, eta aurtengoan ere betekada latza hartzekotan dira sagar zukua eskaintzen duten sagardogileak. Mantso hasi da urtarrilean, hazten joango da otsailean, eta goia joko du martxoan, apirilean itzaltzen hasteko

Andoni Urbistondo ANDOAIN/URNIETA Beterrri-Buruntza sagardoaren triangeluko ertzetakoa da, eta gure herriko ostatuek ederki nabaritzen dute hona etortzen den bisitarien kopuru handia. Eskualdeko lau ostaturekin mintzatu da Aiurri astekaria, urtero neguan errepikatzen ari den fenomeno hobeto ezagutzeko asmoarekin: HK10 hotela, Guria pentsioa eta Altzibar-Berri landetxea. Denei galdera berberak egin dizkie, honatx emaitza.

MAITE ALKAIN HK10 HOTELA

1 Otsaila eta martxo oso indartsua izaten da, urtarrila ez hainbeste. Aurtun sagardotegi garaia luzatu egingo da, Aste Santua ere berandu delako. Asteburuko bezeroa izaten da, larunbatekoa batez ere. Kirol taldeez aparte, sagardotegietako bezeroa da garrantzitsuen hilabete hauetan. Hotela bete egiten da.

2 Batez ere bizkaitarrak etortzen dira, euren autoan, ezkongabe despedidak-eta. Familia batzuk ere etortzen dira, Madrildik edo, urtero etortzen dena. 25-35 urteko bezeroa da, ondo pasa nahi duena, baina afaldu, parranda egin eta gero halako konfort edo erosotasuna nahi duena, gela on batekin, edo gosari on batekin. Normalean bezeroa lasaia, jatorra da. Gertatu izan zaigu, atzerritarrak sagardotegira bidali, italiar batzuk, sekulakoa bildu, eta hotelean goizean buelta eman ezinik ibili. Zenbaitzuk esan izan digute, hotelean halako diskoteka edo barra bat jartzeko, azken tragoa edateko, baina ezin dugu. Hemen ondoko biribilgunean ia astebu-

ruru alkoholemia kontrola jartzen du Ertzaintzak, eta inor ez da hona autoan etortzen.

3 Gehienak sagardotegia lotuta dutela etortzen dira. Atzerritarrekin, edo kirolariren batekin, Urnieta ezagutzen ez badu, laguntzen diegu, baina ez da erraza, ze otsaila eta martxoan larunbat batean sagardotegian tokia bilatzea oso zaila da. Galdetzen digutenei Urnietako sagardotegietara bidaltzen saiatzen gara: Altuna, Eula, Setien... Oinez joan daitezkeenak, batez ere.

4 Urtetik urtera errepikatzen duen jendea da, eta hemen lo egin ondoren Donostiara joaten dira, bisitan. Ohikoa da asteburua han pintxo batzuk hartuz bukatzea.

AMAIA MARTIN, GURIA PENSIOA

1 Asteburuko bezeroa izaten da, larunbatekoa batez ere. Larunbat goizetan poteo handia egoten da tabernan, gero sagardotegira joaten dena, eta asko gaueko afaria egiteko bueltatzen dira ostatura. Otsaila eta martxoan gelarik gabe geratzen gara (10 dituzte, dena), eta gu bezala, Lasarte, Astigarraga eta Hernanin ere antzera gertatzen da.

2 Normalean koadrilak eta familiak izaten dira, bezero lasaia. Koadrilak badira, gauetan joaten dira sagardotegira. Familiak izaten direnean, asteburu pasa egiten dute. Errepikatzen duen jendea izaten da normalean, eta hala egiten dutenei, urtarrila hasieran tokia gordetzeko aholkua ematen diegu, pentsioa bestela segituan betetzen baita. Bizkaitarrak eta nafarrak dira gehiago.

GAZTANAGA
SAGARDOTEGIA

Irurain etxea
Buruntza auzoa
ANDOAIN
943 59 19 68
www.sidreriagaztanaga.com

BURUNTZALDEA, sagardoaren lurraldea
KUPELA, sagardoaren hotela
HK10, sagardozaleen logela

HOTEL
HK10
HOTELA

Hotel K10
943 337 357
info@hotelk10.com
Erratzu industrialdea, Urnieta

LARRE-GAIN
TOLKRE SAGARDOTEGIA

Ereñozu auzoa, z/g
HERNANI
943 55 58 46
616 287 867
larre-gain@larre-gain.com

Inkesta

1 Zenbat bisitari hartzen duzue sagardotegi garaian?

2 Nongo jendea da, zenbat egunetarako etortzen da? Zein bisitari mota da?

3 Sagardotegiei buruzko informazioa eskatzen al dizuete? Eta herriei buruz?

4 Turistak dira edo soilik bezero gastronomikoa da?



Maite Alkain, HK10 hotela.

"SAGARDOTEGIETAKO BEZEROA GARRANTZIA HANDIKOA DA SASOI HONETAN. HOTELA BETE EGITEN DA"



Ainara Martin, Guria.

"FAMILIAK ASTEBURU OSORAKO HURBILTZEN DIRA. BIZKAITARRAK ETA NAFARRAK DIRA GEHIENAK"



Eli Etxezarreta, Altzibar Berri.

"TXOTX GARAIAZ BEZERO UGARI HURBILTZEN ZAIGU. GARRANTZIA HANDIA DU GURE NEGOZIOAN"



Aukera zabala dago.

Nekazal eremuko industria

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak abenduaren hasieran emandako datuekin argi geratzen da sagardogintza landa eremuari lotutako industria dela: "Txotx garaia oihartzun eta arrakasta handiko ohitura da Euskal Herriko sagardotegietan. Urtean 800.000 bisitari inguru izaten dituzte Euskal Herriko sagardotegiek, hasi urtarrilean eta maiatzera arte. Inguruko ekonomian eragin zuzena du". Txotx garaiaz harago, merkaturatzeko bide berriak lantzen ari dira: Muztioa, sagardo apardunak, kiantza ardoen pare ondutako sagardoa, izotzezko sagardoa... Produktu berri horien erakusleihoa sagardoa.eus webgunean topa daiteke.

3 Orokorrean sagardotegia lotuta dutela etortzen dira, eta ez dute gauza askorik galdetzen. Ikasita etortzen dira. Gurean hilabete asko egoten diren langile batzuek ere eskatzen digute aholkua, nora joan edo nora ez.

4 Larunbateko bezeroak sagardotegira joan-etorria egiteko ohitura du, eta igandean ere geratzen direnek Donostiara joateko baliatzen dute eguna.

ELI ETXEZARRETA, ALTZIBAR-BERRI LANDETXEA

1 Aurten mantsoago gabilta, baina bai, nabaritzen da. Sagardotegi garaiko larunbat guztiak beteta izaten ditugu, eta asteburu batzuk ere bai. Gehienak larunbat eguerditan joaten dira bazkaltzera. Urte

batzuk atzera gauzez joaten ziren, orain aldatu da joera. Bazkaltzen dute, eta gau aldeira etxera bueltatzen dira. Sagardotegi garaian bezero ugari hurbiltzen zaigu eta urte osoko negozioan aldagai garrantzitsua da. Demagun astean zehar langileekin irauten badugu, asteburuetan sagardotegietako jendeak laguntzen digula urteko lehen hiruhilekoan.

2 35-40 urtetik gorako pertsonak etortzen dira, eta bikoteak ere bai. Ikasketa despedidak egiteko zaletasuna duten gazte taldeak ere etortzen dira. Orain dela hiru bat urte sukalde librea erabiltzeko aukera jarri nuen landetxean, eta hori gustuko du bezeroak, bere kabuz sukaldean aritzea. Igande goizean jaiki eta mahai gainean gosari

oparo bat topatzea ere bezeroak gustura hartzen duen zerbitzua dela esango nuke. Zaragozakoak, bizkaitarrak, Araba... nahiko gertukoak etortzen dira.

3 Askok sagardotegia hartzen dute aurrena, eta gero lo tokia bilatu. Baina guregana etorri eta aholkua eskatzen dutenak ere badira.

4 Guregana etortzen diren gehienak Donostiatik buelta egin zale dira, asteburu pasa etortzen badira, baina gau baterako etortzen dena, sagardotegira joan, biharamuneko buruko mina pasa, eta martxa egiten du.

JOSEBA JAUREGI, TXERTOTA

Turismoari begira, Andoain herriak ez du Urnietak adina

logelarik eskaintzen. Goiburun dagoen Txertota jatetxeak ostalaritza mailan ondo merezitako fama izateaz gain, bisitariarentzat hainbat logela eskaintzen ditu. Nagusiki, urteko sasoi honetan, koadrilak edo talde handiak hurbiltzen dira gaua igarotzera.

Bezeroa gertuko izaten da, Joseba Jauregi Txertotako jabeetakoak adierazi digunez. Arabarrak, nafarrak, gipuzkoarrak... ingurukoak izaten dira negu aldera hurbiltzen zaizkienak. Guztiak ez badira ere, ia gehienak sagardotegiak eta txotx garaiak erakarrita hurbiltzen dira. Udan gehiago izaten da kanpoko bisitaria, eta horien artetik gehien-gehien hurbiltzen direnak Katalunia aldeko bisitariak dira.

MIZPIRADI
TOLARE SAGARDOTEGIA

Mizpiradi baserria
Leizotz auzoa - ANDOAIN
943 593 954

RZABALA

Goiburu auzoa 5
ADUNA
943 69 07 74
info@rzabala.com

SARASOLA
SAGARDOTEGIA

943 690 283
639 778 420
GORENAK
Asteasu



Txotx garaian milaka lagun hurbiltzen dira sagardotegietara. Denentzat garraio zerbitzua ziurtatzea arazo handia da. SAGARDOROUTE

Garraioarekin arazo ugari sortzen ari dira

Sagardotegi garaian hotelean, pentsioan edo nekazal turismoan asteburu pasa geratzen diren bezeroentzat garraioa ziurtatzea garrantzia handikoa da. Baina ez da batere erraza izaten ari, eta asteburuetan benetako buruhauste bilakatzen da

Andoni Urbistondo URNIETA

Elkarrizketa batean galdetu gabe ateratzen diren kontuak aintzat hartzeko modukoak dira. Garraioaren egoeraz luze mintzatu da Urnietako K10 hoteleko Maite Alkain. Eta oso kritiko, gainera, honako esaldia botatzera ino: "Zerbitzua eman behar da, baina ez dakigu zer egin". Urnietan bi taxi baino ez daude, eta garraio publikoa ere oso urria da. "Urnietako ostalariok ezin dugu Donostiako taxi bat erabili edo eskatu, zona ezberdinean gaudelako, eta bezeroak haserretu egiten dira gurekin. Askok autobusa hartzen dute, batez ere eguerdian bazkaltzera doazenek, baina gauean, gau txori zerbitzuak ez du ezer konpontzen".

Guria pentsioko Amaia Martin eta Altzibar-berri nekazalturismo Eli Etxezarreta bat datoz diagnosiarekin. Amaia Martinentzat benetako arazoa da, txotx garaia iristen denean: "Arazo handia dugu. Urnietan bi taxi bakarrik ditugu, eta Hernanin, pentsiora bueltatzeko garaian eta, bezeroek esan izan digute bi ordu egon izan dutela zain. Gau txori autobusa ez da erabilgarria bertakoa ez den bezeroarentzat, ez baititu ordutegiak eta geltokiak ezagutzen".

Egoera ere okerragoa da herri gunean ez dauden ostalariak. Landagunean daudenean, esaterako. Altzibar-berri nekazal turismoaren kasua, adibidez: "Herrian bertan bazaude, hainbestean, baina gu alde horretatik salduta gaude. Autobusa gutxienez Irurain gainera iritsiko balitz... Honaino etorri egin behar da, eta garraio faltak kaltea eragiten digu".

Irtenbidearen bila, HK10 hoteleko gerentea Gipuzkoako Sagar-

dogileen Elkartearekin ere aritu izan da solasean, "eta arazoa egon badagoela onartzen digute. Ez dakigu zer egin, benetan. Donostiako taxiekin halako adostasunen bat lortu, zerbitzua eman dezaten, agian, baina arazo hori konpondu egin behar da". Alkainek irtenbide bat proposatzen du, baina konbentzimendu handirik gabe: "Txar-txarrean halako zerbitzu pribatua jarriko genuke, bezeroak sagardotegietara eramane, eta ordu jakin batean, haien bila joan, baina horrek autoa edo furgoneta edukitzea eskatzen du, eta gidari bat kontratatu beharra. Ez da irtenbide erraza". Martinek ere ez dio soluzio errazik ikusten: "Bezeroak sagardotegi askotara joaten dira, eta halako antolakuntza berezia prestatu beharko genuke. Pentsiora bueltatzeko orduak jarri behar hori ere, ez dakit zentzu handirik duen". Eta Eli Etxezarretak, azken hausnarketa: "Garraio pribatua eskaintzea ez da erraza, baina agian planteatzeko moduko kontua da. Beste zerbitzu bat eskaini bezeroari, ze eduki izan ditugu irtenbiderik gabe geratu izan diren bezeroak. Bezeroa kontent uzteko beste aukera bat izan liteke".

"GARRAIO FALTAK HERRIGUNEAN EZ GAUDENOI KALTEA ERAGITEN DIGU"

ELI ETXEZARRETA

"GARRAIO PRIBATUA ESKAINTZEA AZTERTZEKO MODUKO KONTUA DA"

MAITE ALKAIN

andoaINDARRA
euskaraz

ASTARBE
SAGARDOTEGIA

Txoritokieta bidea 13, Astigarraga.

943 55 15 27

astarbe@astarbe.eus | www.astarbe.eus

SAGARDOA 100% 100%
sagardoa

EZ ZAITEZ EROTU!

HEMENDI AURRERA ERRESERBATU ZURE MAHATA ELIK BATEAN

www.sagardoa.eus

943 336 811 - info@sagardoa.eus



Mikel Alonso urnietarra. AIURRI

“Postu onak lor ditzakedan lasterketetan saiatuko naiz”

MIKEL ALONSO EUSKADI FUNDAZIOKO TXIRRINDULARIA

Ez du nabarmentzeko osasun arazorik izan neguan, eta egoera soil hori abantaila da berarentzat, iaz nahi eta ezin ibili baitzen neguan

Andoni Urbistondo URNIETA

Mikel Alonsori distira berezia sumatzen zaio begietan (Urnieta, 22 urte). Konfiantza eman dio Azanza kirol zuzendariak, esprintetan saiatzeko askatasuna. Postu onak nahi ditu, garaipena oraindik urrun ikusten baitu. Astebete barru egingo du debuta, Mallorcan.

Bigarren denboraldia dagoeneko Kontinental mailan. Zer moduz joan da negu hasiera?

Iazkoa baino askoz hobe. Iazkoan bi gripe pasa nituen, eta ezin

izan nuen prestakuntza nahi beste findu ahal izan. Negu honetan hobeto nabil, eta entrenamenduetan ere hobeto ari naiz. Aldaketa txiki bat egin dugu prestaketan. Jorge Azanza kirol zuzendaria ari zait laguntzen

"AURTENGO NEGUAN HOBETO NABIL, ETA ENTRENAMENDUETAN ERE HOBETO IBILI NAIZ"

nire punturik onena esprint edo bukaera azkarretara bideratu asmoz. Gauza pare bat aldatu ditugu, eta kontent nago.

Ze aldaketa, jakin badaiteke?

Pisua jaisteko ahaleginari dago-kionez, potentzia irabazteko asmoz. Gimnasioan gehiago ari naiz, esprintak lantzen, menda-teetan ez hainbeste.

Bigarren denboraldia duzu Kontinental Mailan. Zer aldatzen da lehen denboraldiarekin alderatuta?

Iaz urduri sentitu nintzen sarri. Gauzak ahalik eta ondoen egite-

ko grina horrek urduritu egiten zaitu. Gauzak lasaiago hartzen ikasi dut, lasterketek gidoi jakin bat dutela, eta gidoi horretara moldatzen asmatu behar dudala. Kokapenean, edo une jakin batean estutzeak postu on bat lortzeko aukera oro harrika bota dezake, eta egoera horiek kontrolatzen ikasi behar dut.

Benetakoa al da afizionatuen mailatik Kontinental Mailara dagoen jauzia?

Bai, ikaragarri nabaritzen da. Batez ere ihesaldia egin aurreko kilometro horietan, erritmoa oso azkarra da.

Taldeak konfiantza du zugan. Postu onak lortzeko Fundazioaren aukera onenetakoa zarela diote.

Taldeko azkarrenetakoa naiz, eta oso eskertua nago Azanzak emandako erraztasunei, mendian gora hain ondo ibiltzen ez nai-zela jakitun.

Ezaugarri jakin batzuetako lasterketak korrituko dituzu, beraz.

Bai, lasterketa gehienak itzuli lauak edo igoera zailik ez dutenak izango dira, ahalik eta zuku handiena lortzeko asmoz. Nire abiadura baliatzen saiatu behar naiz, ibilbide lauan, eta etapa gorabeheratsuetan taldearen mesedean aritu lanean, ur potoak igoz edo eskatzen didaten lana eginez.

Aurkezpenaren egunean nabaritu zen giroa oso ona zela. 11 laguneko taldea. Motz samarra al da?

Beno, ez dugu egutegirik bikoiztuko, eta zentzu horretan, ez da kopuru eskasa.

Polemika ere sortu da Fundazioak Kolonbiako txirrindulari gazte bat fitxatu duelako. Zer diozu?

Txirrindulariok, gure artean, ez dugu horretaz hitz egiten. World Tour mailako talde batekin dauka kontratua Higuaitak (Education First), eta haiekin fitxatu badu, zerbaitegatik izango da. Guretzat lagungarria izan daitekeela uste dut.

Zein egutegi osatuko duzu?

Hasiera batean bi etapa Mallorcako Challenge-an (urtarrileko azken egunean korrituko da lehen etapa). Han bi etapa korrituko ditut, bat, ziur, azkenekoa (otsailak 3). Bestea ikusiko dugu. Ondoren, Valentzia edo Andaluzia-

"AURTENGO DEBUTA DATORREN ASTEKO MALLORCAKO CHALLENGEAN EGINGO DUT"

ko itzulia, ibilbidearen arabera. Gero Portugalera joango naiz, Alenteixoko Itzulira, nahiko ondo moldatzen bainaiz han. Errioxa eta Gaztela-Leon itzulien ondoren ikusiko dugu zein egutegi osatu.

Non daukazu jarrita begia?

Mallorcan, Valentzian eta Andaluzian postuak lortzea zaila izango da, World Tourreko txirrindulariak bertan direlako. Portugalen postu onak lortzeko aukera handiagoa dut, txirrindularien maila apalagoa baita.

Garaipenak lortzeko beharrezan ikusten al duzu zeure burua?

Inola ere ez. Iaz 3., 4. eta 6. postuak lortu nituen, baina esprintak oso bereziak dira. Mundu bat. Xomorroa izan beharra dago, eta zenbaitetan gaiztoa, nondik sartu, nondik joan, noren gurpila hartu edo noiz hasi erabakitzeke. Ukabilak sartzeko jokoa hasten denean kontuz ibili beharra dago. Iaz 3. izan nintzen urrutitik egin nuen esprinta, eta azken unean gaintu ninduten. Balazta ez ukitzea da gakoa. Ukitzez baduzu, jokoz kanpo geratzen zara, baina 60-65 kilometro orduko abiaduran ez da erraza burua hotz mantentzea. Balaztari eragiteko tentazioa oso handia da.

Eta tropelean zer? Nabaritzen al duzue hirugarren mailako ziklistak zaretela? Errespeturik ba al dute zuekin talde handiek?

Nola jokatzeko duzun... esan nahi dut, Movistar taldea tiraka badoa, eta zuk haien gurpilean sartu nahi izatea, Kontinental mailakoa izanda, ba ez da erraza... Galoiak irabazi behar dira. Esprint batean, ordea, askatasuna dago.

Mailaz igotzeko presiorik sentitzen al duzu?

Oraintxe bertan halakorik ez daukat buruan. Ilusioa egingo lidakeela? Ziur. Eta Fundazioarekin balitz, ba hobe, baina ez nau arduratzen. Babestua sentitzen naiz: Mikel Landa bera, Azanza, Urbycolan, Orbea, Etxe Ondo, Laboral Kutxa babesleen laguntza...

Eta kontrako norabidean? Alegia, zure maila ez eman eta ziklista izateko atea ixteko arriskurik sumatzen duzu?

Ez. 22 urte ditut, eta pasa den denboraldian gauzak espero bezala ez zirela joan ikusteak indarra ematen dit hastear den honetan gehiago ahalegintzeko. Bizitza osoa daukat aurretik, eta 2020an zer, nola, non egon naitekeen ez nau arduratzen.

Agustin Urretabizkaia, ipar martxako kirolaria

IPAR MARTXA Astebete pasa geratzen da Salesiar Ikastetxeko herri krosa lehiatzeko. Korrika aritzeaz gain, Nordic Walking edo ipar martxa diziplina eginez ere osatu ahal izango da 7 kilometroko proba. Agustin Urretabizkaia irakaslea iazko irabazlea da

Andoni Urbistondo URNIETA

Iaz egin zuten lehen aldiz, eta izandako arrakasta lagun, errepikatzea erabaki dute. 2018koan Agustin Urretabizkaia Magaleko irakaslea izan zen irabazlea. **Otsailaren 3an egingo den herri krolean, korrika egiteko aukeraz gain ipar martxa edo nordic walking delako diziplinan ere osatu ahal izango da saioa. Nolatan?**

Salesiar ikastetxeko ikasle ez ziren herritarrentzat duela bost urte zabaldu zen lasterketan parte hartzeko aukera. Eskualdean ipar martxan dabiltzan kirolari sorta polita badela ikusita, iaz lasterketa bikoitza antolatzea erabaki genuen.

Hiru urte atzera ipar martxako arauak, epaileak eta beste osatu zirela baliatuz, kirol ofiziala bilakatu zela ikusita, ipar martxa proba ere antolatzea erabaki genuen. Ikastetxean bagara batzuk kirol jarduera hori egiten dugunak, eta pausoa eman genuen. Iaz lehen aldiz izan zen, eta 70 bat lagunek eman zuten izena.

Zer da Ipar Martxa?

Oinez ibiltzea, baina bastoiekin lagunduta. Oso kirol konpletoa da, hankekin ibiltzeaz gain, besoekin eta gerretik gorako gorputz atalekin ere indar handia egiten delako. Finlandian sortu zen, elurretan ibiltzeko, noski, baina udan, elur faltan, iraupen eskiko kirolariek jarri zuten martxan. Bastoiei esker pausoa handitu egiten duzu, eta azkarrago joaten zara. Euskal Herrian paseatzen dutenak bezalaxe, asko daude ipar martxa egiten dutenak, baina zenbaitzuk lehiaketetan eta parte hartzen dugu. Zaletasun gisa, baina lehiatuz, federatuta eta guzti.

Zerk egiten du berezi ipar martxa?

Oso exigentea da fisikoki, baina ez du artikulaziorik kaltetzen, korrika gerta daitekeen bezala. Ikasterraza da, ez da zaila, eta oso osasuntsua da.



Ipar martxako lasterkarien podiuma, 2018ko edizioan. AIURRI

Ohiko martxaren antzekoa da, baino azkarxeago ibiliz. Bihotz taupada erritmoak oso gora eramaten dira. Fisiologoek diotenez, gorputzaren %90 jartzen da mugimenduan.

2018an lehen aldiz lasterketa antolatu eta 70 laguneko parte hartzea lortzea... Harritzekoa, ezta?

Euskal Herrian gabeziaren bat baldin badago, lehiaketa falta da. Iaz urte osoan lasterketa bakarria egon zen Gipuzkoan. Antolatzen diren apurretan, jende askok ematen du izena.

Eta zein aurreikuspen egiten duzue aurtengo probarako?

Gasteizko, Palentziako jendea espero dugu. Espainiako txapelketetan podiumera igo diren atleta batzuk etorriko dira, eta hori garrantzitsua da guretzat. Kopuruari dagokionez, 70-80 ipar martxalari espero dugu. Herri-krosa.eus atarian izena emateko aukera dago. Ea jendea animatzen den.

"ESPAINIAKO TXAPELKETAN PODIUMERA IGOTAKO LASTERKARIAK HURBILDUKO DIRA"

Zuen artean, lehia dela eta, saltsa sortzen al da?

Bai, bai. Korrika dabiltzan parekoak. Irabazleentzat sariak daude, eta horrek kirolarien arteko lehiakortasuna areagotzen du.

Antolaketa lanak zailak al dira?

Ez, korrikarako prestatzen den azpiegitura bera ipar martxako probarako erabil daitekeelako. Kros arrunt bat bezala antolatzea da kontua, baina gure kasuan bi kirol jarduera ezberdinekin.

Eguraldi gaiztoa omen dator, datozen egunetarako. Prest al zaudete?

Otsaila hasieran, Euskal Herrian, zaila da eguraldi eguzkitsua eta epela ziurtatzea. Beraz, negu girora ohituta gaude.

Lehiaketa batean parte hartu aurretik komenigarria da ikastaroren bat egitea. Aukerarik ba al dago?

Gipuzkoako Mendi federazioan ikastaroen inguruko informazio osatua ematen da.

"FISIOLOGOEN ARABERA, GORPUTZAREN %90 JARTZEN DA MUGIMENDUAN"



Haizea Lekuona eta Haizea Olaria kadete mailako neskek, jokoan. AIURRI

Urnietako kadete mailako nesken balentria

ESKUBALOIA Gipuzkoako liga bigarren postuan amaitu eta gero, lehen aldiz Euskal Ligan arituko dira

Erredakzioa URNIETA

Kadete mailako neskek klubaren historian sartuko dira, Urnieta KE taldeak estrainekoz Euskal Liga jokatu baitu. Balentria hori joan zen asteburuan lortu zuten, Leizaran taldea 29-24 garaitu eta gero. Garaipenari esker Gipuzkoako ligako bigarren

postua ziurtatu zuten. Hurrengo asteetan, beraz, Euskadiko talde onenen aurka arituko dira.

Garaipena lortzea kosta egin zen, atsedenaldira galtzen iritsi baitziren. Defentsa lanetan hobetuz eta zaletuen animoak jasoz markagailua aldaraztea lortu zuten.



Senior mailako taldearen aurkezpena, irailaren hasieran. AIURRI

Senior mailako taldeak tinko eusten dio lehen postuari

FUTBOLA Emakumezkoen Gorengo Mailako bigarren multzoko lidergotzari eusten dio, Hernani gainditu eta gero

Erredakzioa URNIETA

Liga amaitzeko bi partida besterik geratzen ez direnean, Urnieta eta Aloña Mendi taldeek 37 eta 35 punturekin abantaila handia hartu dute. Dagoeneko bi taldeen arteko kontua izango

da lehen postuan amaitzea. Emozioa ez da faltako. Asteburu honetan, esaterako, Urnietak 3. postuan sailkatuta dagoen Murtriku jasoko du etxean. Eta Aloña Mendi, berriz, 4. postuan dagoen Hernaniren aurka lehiatuko da.



Azken asteetan sare sozialen bidez zabaldu dituzte hainbat probatako irudiak. ANDOAINGO

Errepidean aritzeko prestakuntza burutu dute

TXIRRINDULARITZA Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideak denboraldi berriari ekiteko prest daude

Erredakzioa ANDOAIN

Negua aurrera joan ahala, Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideei errepidera irteteko garaia iritsiko zaie. Abenduaren amaieran osasun azterketak eta prestakuntza fisikoa egin eta gero, asteotan Donostiako Velodromoan eta ziklo kros proba ez-

berdinetan trebatuz joan dira. Ziklo krolean, esaterako, klubeko hainbat txirrindulari Beasaingo edota Ormaiztegi probatan irten ziren. Urtarrilaren 10ean amaiera eman zioten lokatz gaineko txirrindularitzari. Atsedeen egunak dituzte orain, errepidean hasi aurretik.

Urolako mendialdera irteera, Euskaldunakoen eskutik

MENDIZALETASUNA Zestoa eta Azpeitia arteko ibilbidean Arauntza mendira igotzeko aukera izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Mendizaleen hitzordua igandean iritsiko da, Euskalduna MT-koen eskutik. Urola aldera doaz, eta irteera ordua 07:15tan ipini dute. Ohi bezala, Kaleberriko bus geltokitik abiatuko dira.

Zestoa, Santa Engrazia, Arauntza mendia eta Azpeitia arteko zeharkaldia egiteko bi ibilbide antolatu dituzte, 3:30 eta 5:30 ordu artekoak. Bazkideek 14 euro orainduko dute, eta bazkide ez direnek 17 euro.

Euskal Herriko txapeldun-orde

IGERIKETA Buruntzaldea IKT taldeko Eneko Elizasu izan zen Lasarte-Oriako txapelketan lehiatzen lehena, eta bikain aritu zen. 2000 metrokoan 24:26:10 minutu egin zuen. Proba horretan eta 800 metrokoan marka pertsonal berriak ezarri ditu. 2000 metrokoan, gainera, 15 urtekoen artean errekor berria ezarri du. Zorionak!



BURUNTZALDEAKT



Andoaingo saski jokalaria. GANBARA

Ganbarako hiru talde etxean ariko dira, asteburu honetan

SASKIBALOA Aurrekoa ez zen asteburu ona izan infantil txiki, infantil handi, kadete eta junior mailako taldeentzat. Asteburu honetan, ordea, lautik hiru talde etxean arituko dira. Infantil txiki partida larunbat honetan jokatu dute, goizeko 09:00tan. Iluntzeko 19:15tan, berriz, kadete mailakoak arituko dira. Infantil handi taldekoek igandean jokatu dute, 09:15tan hasita. Junior taldekoak Legazpira doaz.



Beñat Txapartegi eta Mikel Jauregi. UKE

Trinketea, gomazko paleta eta pala motza asteburuko egutegian

PILOTA Ostegun honetan, 21:00tan hasita, Urnieta-Hernani buruz buruko trinkete partida Iruran. Ostiralean, toki eta ordu berean, Urnieta-Hernani binakako partida. Gomazko paleta partidak Urnietan bertan dira, ostiral honetan 20:00tan hasita. Partidak: Urnieta 1-Eple, Urnieta 2-Danok bat. Pala motzekoak Ordizian arituko dira, larunbatean 10:00tan.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZA	
Mariño-Euskalduna	1-2
Urnieta-Roteta	1-0
Baskonia-Mundarro	3-0

SAILKAPENA

1 Euskalduna	46 puntu
2 Mundarro	36 puntu
3 Billabona	34 puntu
11 Dunboa	19 puntu
12 Urnieta	19 puntu
13 Orioko	12 puntu
16 Mariño	9 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00 Euskalduna-Billabona / Ig, 27
17:30 Tolosa CF-Urnieta / Lar, 26

ERREGIONAL MAILA

EMAITZA

Danena-Euskalduna	5-0
-------------------	-----

SAILKAPENA

1 Danena	38 puntu
6 Mundarro	27 puntu
8 Euskalduna	18 puntu
10 Lengokoak	14 puntu
12 Asoleus	7 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:00 Euskalduna-Lengokoak / Lar, 26

GORENGO MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Hernani-Urnieta	2-3
Euskalduna	Atsedena

SAILKAPENA

1 Urnieta	37 puntu
2 Aloña Mendi	35 puntu
3 Mutriku	27 puntu
4 Hernani	24 puntu
5 Euskalduna	17 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30 Urnieta-Mutriku / Lar, 26
15:30 Intxurre-Euskalduna / Lar, 26

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Euskalduna-Billabona	0-2
----------------------	-----

SAILKAPENA

1 Billabona	38 puntu
14 Euskalduna	17 puntu
16 Ordizia	15 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:30 Ordizia-Euskalduna / Ig, 27

JUBENIL MAILA, KOPA

EMAITZAK

Usurbil-Euskalduna	3-1
Baskonia-Urnieta	2-1

SAILKAPENA

1 Danena	4 puntu
2 Mundarro	3 puntu
5 Urnieta	3 puntu
6 Euskalduna	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:00 Euskalduna-Sanse / Lar, 26
18:15 Mundarro-Urnieta / Lar, 26

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Euskalduna-Zestoa	0-2
Urnieta-Danena	1-0

LEHEN FASEA AMAITUTA

1 Tolosa	42 puntu
2 Zestoa	32 puntu
6 Urnieta	11 puntu
7 Danena	9 puntu
8 Euskalduna	5 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

10:00 Urnieta-Amara Berri / Ig, 27

KADETE MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Kostkas-Euskalduna	1-1
--------------------	-----

SAILKAPENA

1 Antiguoko	45 puntu
15 Euskalduna	6 puntu
16 Orioko	1 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:15 Euskalduna-Sanse / Lar, 26

ESKUBALOA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Soraluze-Urnieta	30-24
------------------	-------

SAILKAPENA

1 Munttarpe	18 puntu
2 Eibar	17 puntu
4 Urnieta	13 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00 Ormaiztegi-Urnieta / Lar, 26

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZA

Zeppelin-Leizaran	19-24
-------------------	-------

SAILKAPENA

1 Usurbil	20 puntu
2 Egia	16 puntu
3 Leizaran	16 puntu
4 Munttarpe	10 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30 Leizaran-Usurbil / Lar, 26

JUBENIL MAILA

EMAITZA (1-6 POSTUAK)

Hettich-Leizaran	33-24
------------------	-------

SAILKAPENA

1 Ereintza	10 puntu
6 Leizaran	2 puntu

EMAITZA (13-18 POSTUAK)

Donibane-Urnieta	37-38
------------------	-------

SAILKAPENA

1 Elgoibar	10 puntu
2 Urnieta	8 puntu

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Urnieta-Leizaran	12-14
------------------	-------

SAILKAPENA

1 Elgoibar	10 puntu
4 Leizaran	5 puntu
5 Urnieta	2 puntu

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 25

ANDOAIN Informazio kanpaina
Edukiontzia grisaren ezarketa herrian.
Informazio puntua zabalik.
10:30-14:00, Zumea plaza.
16:00-19:30, Aiztondo (Karrika).

URNIETA Korrika bilera
Urnietako batzordea osatzeko deialdia.
16:30, AEK. Errekalde 1.

ANDOAIN Antzerkia
"Lo mejor de Yllana" antzezlan,
antzerki konpainiaren 25 urteko
ibilbide oparoaren ospakizuna.
21:30, Bastero. 15 euro.

URNIETA Lehiaketa
Diaporama lehiaketan parte hartzeko
azken eguna. 15 urtetik gorakoentzat.
Izen-ematea: urnieta.eus.
Lanak aurkezteko azken eguna.

ANDOAIN Erakusketa
Frederic Gutierrez Barderen 'Izakia
eta itzalen artean' erakusketa
otsailaren 23ra arte zabalik dago.
Ohiko ordutegia, Bastero.

LARUNBATA 26

ANDOAIN Pailazoak
"Musua" Pirritx, Porrotx eta
Marimototsen eskutik.
16:00, 18:30, Bastero. 6 euro.

URNIETA Ate irekiera
Magale (2019-20rako matrikulazioa).
Info: magalekastetxea.eus.
17:00, San Juan 1 kalea.

URNIETA Ikastaroa
DYAren eskutik, bihotz-biriketako
suspertzea. Familia osoarentzat.
Informazioa: 943 46 46 22.
17:00-19:00, San Juan kalea, 42.

URNIETA Antzerkia
"Sorginak sutara" antzezlan.
18:00, Sarobe.

ASTELEHENA 28

ANDOAIN Inauteriak
2019ko inauteriak prestatzen hasteko
bilera deitu du Udalak.
19:00, Urigain.



Andoaingo kantu errondaren hasiera, iaz. AIURRI

ESKUALDEA Santa Eskean irteteko entseguak Andoain eta Urnietan
Urnietan Udalak antolatutako ohi du Santa Ageda bezperako kantu erronda. Andoainean kalez kale Larramendi Bazkuna ibili ohi da, eta Goiburu aldean auzotar taldea. Otsailaren 4ko kantu erronda prestatzeko entsegu bana deitu dute.
Urtarrilak 30, asteazkena. 20:00, Ambrosia Olabide eguneko egoitzan. Andoain
Urtarrilak 31, osteguna. 20:00, Lekaio. Urnieta.

URNIETA Parte hartze prozesua
Herritarrek Udal aurrekontuen partida
bat zertan inbertitu erabakitzeko
aukera izango dute.
Azken eguna: Urtarrilak 28.

ASTEARTEA 29

ANDOAIN Informazio kanpaina
Edukiontzia grisaren ezarketa herrian.
Informazio puntua zabalik.
16:00-19:30, Manuel Lekuona.

ANDOAIN Literatur solasaldia
Roberto Bolañoren "Estrella distante"
liburua aztergai izango dute.
19:00-20:30, Udal liburutegia.

ASTEAZKENA 30

ANDOAIN Informazio kanpaina
Edukiontzia grisaren ezarketa herrian.
Informazio puntua zabalik.
16:00-19:30, Leizaran institutua.

OSTEGUNA 31

URNIETA Odol-emaileak
Odol emaleen hitzordu berria.
18:30-20:30, Anbulatorio zaharra.

URNIETA Entsegua
Santa Eskean irtengo den taldea.
20:00, Lekaio.

URNIETA Deialdia
Ordenantza fiskaletan hobaria
eskatzeko aukera. Argibideak: Bertan.
Azken eguna: Urtarrilak 31.

ANDOAIN Informazio kanpaina
Edukiontzia grisaren ezarketa herrian.
16:00-19:30, Galardi inguruan.

OSTIRALA 1

ANDOAIN Informazio kanpaina
Edukiontzia grisaren ezarketa herrian.
16:00-19:30, Etxeberrieta plaza.

ANDOAIN Antzerkia
"Ghero: azken euskalduna", Mikel
Martinez eta Patxo Telleriaren eskutik.
21:30, Bastero. 12 euro.

LARUNBATA 2

ANDOAIN Informazio kanpaina
Edukiontzia grisaren ezarketa herrian.
Informazio puntua zabalik egongo den
azken eguna izango da.
10:30-14:00, Merkatu plaza.


ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Aquaman
Igandea, 27:
17:00, 19:30.
Astelehena, 28:
19:30; 22:00.
Ikuslearen eguna.
Pumori,
mediaren alaba

Asteartea, 29:
19:00. Euskaraz.

URNIETA
SAROB
Condorito
Igandea, 27: 17:00.
Trukitrek
Igandea, 3: 17:30.



SINOPSISIAK




Pumori, mediaren alaba
Ekoizpena: Baleuko, EITB. **Herr.:** Euskal Herria. **Laguntza:** Alex
Txikon. **Iraupena:** 86 minutu. **Hizkuntza:** Euskara.

Pumorin hildakoen omenez


2001. urtean Himalaiako
Pumori mendiaren (Nepal)
gailurrera abiatu ziren bost
euskal mendizale izotz jauzi
baten ondorioz hil ziren. Filma
Beñat Arrue, Iñaki Aiertza, Aritz
Artieda, Javier Arkauz eta Cesar
Nieto 22 eta 27 urte bitarteko
mendizaleak omentzeko
helburuarekin egina dago.
Baina bada beste kontakizun
bat, gertaerari estuki lotuta
dagoena. Istripua gertatu eta
urtebetera, Arantxa Gurrutxaga
eta Pello Arrue Beñat Arrueren
gurasoak Nepalera abiatu ziren.
Bi helburuarekin egin zuten

bidaia hura: hil ziren
mendizaleei omenaldia egitea
eta Beñat bizirik zegoeneko
argazkien haren alboan ageri
den haurra aurkitzea. Haur hori
Suku Maya da, dokumentaleko
protagonistetakoa. Trailerrean
ikus daitekeenez, Suku Maya
bera hizlari agertzen da euskara
ederrean. Euskaldunak eta
Udalak emankizuna antolatuta
dute, datorren urtarrilaren
29rako. 19:00tan hasiko da
Basteron, eta emanaldiko
sarrerekin biltzen duten dirua
SOS Himalaya elkartera
bideratuko dute.


ZORION AGURRAK



URNIETA
Aritz
Zazpi urte bete zenituen urtarriaren 21ean. Muxu asko familia guztiaren partetik.



URNIETA
Pablo Rosco
Urtarrilaren 22an etxeko txikiak 5 urte bete zituen. Muxu handi etxeko partetik. Aita, ama eta Nicolas.



URNIETA
Asier Mateo
Urtarrilaren 23an 8 urte beteko dituzu! Zorionak futbolzale handiari eta etxeko txikiari! Muxu erraldoia.



ANDOAIN
Amaia Errazkin
Urtarrilaren 27an Amaiak 22 urte beteko ditu. Zorionak aitona Esteban eta amona Mirenen partetik.



ANDOAIN
Izaro
Urtarrilaren 25ean gure Izarok 6 urte beteko ditu. Zorionak etxeko partetik. Muxuak, asko maite zaitugu!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea

"Zorion agurrak" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze eguner bitarte, ikusgai izango da webgunean.

Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua eta argazkia bidali, herria zehaztuz.

Arantzibia 4-5, behea.

Andoain

943 300 732.

Whatsapez:

619 16 35 37

Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora herria zehaztuz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 26 eta igandea 27

ZATARAIN: Elizondo, 6.
943 590 802. Andoain.

URNIETA

Larunbata 26 eta igandea 27

ETXEBARRIA: Andre, 48. "Cuevas".
943 551 793. Hernani.
GAUEZ, BI HERRIETAN: ALDABE.
943 336 022. Hernani.

"Sorginak sutara" antzezlan, Saroben

Larunbat honetan, arratsaldeko 18:00tan hasita, Urrietako Egape antzerki taldeko kideek "Sorginak sutara" antzezlan taularatuko dute. Aurreko astean AEK euskaltegian aurrerapentxo eskaini eta gero, Saroben talde osoa batera arituko da

Erredakzioa ANDOAIN

Joxe Mari Berasategi antzerki zuzendariak gidatuta, Egape antzerki taldeko hiru talde taulatuko dira, eta nork bere zatia antzeztuko du. Bost lagunez osatutako guraso talderen txanda izango da lehenbizi. Ondoren, 4., 5. eta 6. mailako ikasleak helduko dira. Obraren azken zatian, azkenik, 1., 2. eta 3. mailakoek hartuko dute parte. Ordubeteko ikuskizuna izango da, eta Berasategi zuzendariak adierazi duenez "ikuskitun bizia eta alai izango da, hori ziurta dezakegu. Azken asteetan antzezte guztiak gogoz aritu dira entseguak egiten, eta jendaurrean dena emango dute". Aurten, estrainekoz, zenbait guraso antzerkian murgiltzera animatu dira, eta hori ere azpimarratu nahi izan du Berasategi: "Hasi berriak dira, baina eskarmentu handikoen pare aritzeko gai direla erakutsi dute".

Antzerkiaren egoera Urrietan

Eskolaz kanpoko jarduera osagarri gisa lanean ari da Egape ikastolako antzerki taldea. Bestalde, Berasategi Egape ikastolako eta Magale ikastetxeak Urrietako Udalarekin batera abian jarri zuten "Antzerkia eskolara" egitasmoa gidatzen jarraitzen du, eskola orduetan.



AEK euskaltegian antzeztanaren aurrerapentxo eskaini zuen taldea, argazkian. Larunbat honetan kide gehiago igoko dira Sarobeko taula gainera. AIURRI

Antzerkigintzan dena ez da albiste ona, hala ere. Berasategi baiezatu duenez, Denda Berri jubilatuen antzerki taldea desegin egin da: "Tristura sortzen du berriak, oso antzeztan politak prestatu izan ditugulako; jarraitzaile sutsuak genituen, Sarobe

"HELDUEN TALDEA HASI BERRIA DA, BAINA ESKARMENTU HANDIKOEN PARE ARITZEKO GAI DA"

betetzeraino. Baina ez dago beste erremediorik. Zenbait kidek jada ezin izan dute jarraitu, duintasunez egindako antzerkiak exigentzia handia dakarrelako berarekin. Gainera, kide berririk ez bada hurbiltzen, zaila da talde egonkor bati eustea".

"DENDA BERRI ELKARTEAN EZ DA TALDERIK OSATU. TRISTURA SORTZEN DU ALBISTEAK"

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak
Aiurri:
90 euro



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Little Martin Selektah. MUSIKAZUZENEAN

Urnietako Gazte informazio puntuko tailerretan izena emateko epea, zabalik

Erredakzioa URNIETA

Otsailaren 1a baino lehen eman behar da izena, ohiko tokietan. Hots, Gazte informazio puntuan, Bertan bulegoetan, Lekaion edota Urnieta.eus webgunean. Hiru dira negurako iragarri dituzten tailerrak:

• DJ tailerra

Little Martin Selektahen eta Martin Arakamaren eskutik, 14-25 urte bitartekoentzat. Otsailak 8, ostirala. 18:30-20:00

• Lehen laguntza

Hauxe da DYAREN esaldietakoa: "Larrialdi egoeratan jokatzeko jakitea erraza da. Eta batzuetan bizitza bat salbatzeko nahikoak dira ezagutza soil batzuk". 16-30 urte artekoentzat. Otsailak 14, 21 eta 28. 17:00-19:00.

• Klown tailerra

Algara Klown elkartearen eskutik, 16-30 urte artekoentzat. Martxoak 12, asteartea. 17:30-19:00.

AZKENA



2017an Korrika kontrako norabidean igaro zen, eta egunez. Tolosaldeetik barrena Hernani aldera abiatu zen. Irudian, Urnietan. AIURRI

Korrika batzordeak martxan jarri dituzte

Astelehenean Andoaingo Korrika batzordea martxan jarri zuten, AEK euskaltegian bertan egin zuten bileran. Ostiral honetan hasita, bestalde, Urnietako batzordea biltzen hasiko da. Errekalde kaleko euskaltegian hitzordua ipini dute, arratsaldeko 16:30ean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Andoaindarrak abiatu dira, eta urnietarrak Korrikaren etorrera prestatzen ostiral honetan bertan hasiko dira. Denbora asko falta bada ere, xehetasun ugari lotzeko daude. Talde lanean egitea lortzen bada, askoz hobea. Urnietarrek deialdi irekia luzatu diete euskaltzaileei, bilerara hurbil daitezten: "Ostiral arra-

tsaldeko bilerara hurbiltzen direnek 21. Korrikaren nondik norakoak eta gure herrian egitekoak diren jarduerak ezagutzeko aukera izango dute. Horrela nahi izanez gero ere, herrirako bestelako ekitaldiak proposatzeko aukera izango dute".

Euskararen lekukoa Urnietan barrena eramateko euskaltzaileen laguntza behar izango dute.

Andoainen bigarren bilera, datorren otsailaren 11n

Astelehenean Andoaingo Korrika batzordearen lehen bilera egin zuten. Besteak beste, Korrikako kilometroen eskaintza nori bideratu aztertzen aritu zen. Ekitaldiei dagokionez, 2017an egin zuten 'Peto-potea' berriz ere errepikatzeak geratu ziren. Bestalde, ikastetxeekin batera

Korrika Txikia egiteko aukera lantzea ere egoki ikusi zen. Korrika Andoaindik igaroko den gauan herri afaria egitekotan dira. Ekimen horiek guztiak lantzeko eta zehazten hasteko hurrengo bilera otsailaren 11n 18:30ean egingo dute AEK euskaltegian: "Bilerak irekiak dira eta herritarrak eta euskaltzaileak gongodatu nahi ditugu".

Foru Aldundiaren diru ekarpena Urnietako Udal kiroldegi berriari

Eraberritze lanetarako lankidetzak hitzarmena sinatu dute Mikel Pagola alkateak eta Denis Itxaso diputatuak

Erredakzioa URNIETA

Foru Aldundiak, Gipuzkoako kirol azpiegiturak berritzeko plangintzan, 55 udalerritan diru ekarpena egitea erabaki du. Aste honetan Denis Itxaso Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol

eta Kultura diputatua Urnietan izan da, Urnietako alkate Mikel Pagolarekin lankidetzak hitzarmena sinatzeko. Ezaguna denez, Urnietako Udalak kiroldegian eraberritze sakona egiteari ekingo dio laster. Eta lan guztiak

burutzeko 8 milioi euroko gastua aurreikusi dute. Aldundiak ia 470.000 euroko dirulaguntza emango duela iragarri du, bi partida ezberdinetan banatuta. Kopuru osotik 249.880 euro Kirol lansailetik aterako dira, kiroldegiaren erreformaren lehen fasea burutzeko bideratuko dena. Aldundiak, bestalde, Kultura lansailetik 220.000 euroko bigarren partida bideratuko du eraikin berriaren gizar-te eta kultur mailako espazioak eraikitzeko.



Hitzarmena sinatu eta bisitaldia egin zuen Itxaso Foru Diputatuak. AIURRI



Aurtengo Korrika iragartzen duen kartela KORRIKA

Goizaldean igaroko da eskualdetik

Apirilaren 13tik 14ra igaroko da Korrika, Beterri-Buruntza eta Tolosaldean barrena. Hernani utzi eta gero, sarbidea Urnietan 2:03tan egitekoa da, Andoaingo norabidean. Andoaindik barrena 2:26tan igaroko da, Aduna, Zizurkil eta Villabona aldera abiatzeko.